

Juan Ignacio Perez

EHUKO ERREKTOREGAIA •

«EHUko errealitatean sustraitua, baina geroko programa da»

■ ■ ■ EHUko Euskara errektoreorde karguan bi urte eta erdi inguru eman ostean, bere burua errektorerako aurkeztea erabaki du Juan Ignacio Perezek. ■ ■ ■ Lanbidez Biologiako katedraduna den euskaldunberri honek argi dauka talde proiektu bat dela, eta berak hartu duen erabaki bakarra hautagaitzako buru joatea izan dela nabarmendu du.

■ Azken unea arte [atzo arte] ez duzu baieztatu errektoregai izango zarela. Zergatik?

Taldearen erabakia izan da hauteskundeetan parte hartu eta gaur arte [atzo] ezer ez esatea; zeuden proiektu batzuk garatu, egin ez ditugun beste batzuk egin, eta agian, guk nahi genuen bezala atera ez diren beste gai batzuk beste modu batean planteatzeko.

■ Nola defendituko zenuke zure programa?

Unibertsitateko errealitatean ondo sustraitutako programa da, baina etorkizunari begira egina.

■ Zein dira zure programaren ildo nagusiak?

Gure asmoa da Unibertsitatearen nolabaiteko barne antolaketa moldatzea. Barne egitura funtzionalago bat aurkitu behar dugu. Bestetik, Unibertsitateak plan estrategikoa behar du, datozen urteetan sortuko diren erronka berriei aurre egiteko estrategiak eta lan lerroak definituko dituen plana.

Beste kontu garrantzitsu bat irakaskuntza berritzea eta xamurtzea da. Teknologia berriek zeresan handia dute eta horren aldeko apustu argia egiten dugu.

Programaren beste lehen-



XOUSE SIMAL

tasun bat, Unibertsitateetik kanpo aritzen diren profesionalak birziklitzeko eskaintza definituak egitea da.

■ Zuk landutako Euskara Plana garatzea al da beste lehentasunetako bat?

Bai, prestatu dugun plan-gintza garatu egin behar dugu. Baina, era berean, hurrengo planaren lehen eskema landu beharko da, hemendik lau urtera oraingo

plana bukatu egingo da eta. Plan berri horretan, esaterako, enborrezko irakasgaien eskaintza osoa euskaraz eskaintzera joko genuke.

■ Unibertsitatea gizartera zabaldu beharraz asko hitz egiten da. Zein garrantzi ematen diozu?

Unibertsitatea ireki egin

behar da bi mailatan: nazioarteko testuinguruan eta gizarteari begira. Nazioarteko proiektioari dagokionez, gure ikasleak kanpoko Unibertsitateetara joatea eta atzerrikoak gureganatzea bultzatu behar dugu. Eta horretarako, proiektu piloto bat abian jarri nahi dugu hainbat irakasgai



■ bat-batean

Barruti bakarra? Gaizki, arin eta autonomi erkidegoekin kontatu gabe egina. Ikasleen mugikortasuna bultzatuko nuke, baina ez Espainian, gutxienez Europa osoan.

Ikasketa planak? Arazo garrantzitsuak sortu dituzte; irakaskuntza zama handia delako eta definitzeko irizpideak, gutxienez, eztabaidaga-

rriak direlako. Ahal den neurrian arazook konpontzen saiatu beharko gineteke.

Euskara? Euskaldunek Unibertsitatean erdaldunek bezain eroso sentitu behar dute.

Unibertsitatea-gizartera lotura? Bultzatu egin behar da, bientzat onuragarria delako.

Autonomia unibertsitaria? Guztiz aldekoa naiz. Ez dakit hainbat kontutan noraino dugun autonomia; uste dut

gutxi dela. Adibidez, dugun irakasle sistema ez da batere autonomoa.

Unibertsitate birtuala? Bate-tik, ikasle potentziala helitzeko bide bat da, eta bestetik, gure ikasleei orain arte eskaini ezin izan diegun mundu bat eskaintzeko bidea da.

Hiru campusak? Hiru errealtate: bakoitzak bere nortasuna izan behar du, baita lan egin zein bere burua kudeatzeko gaitasuna ere.

Euskal Unibertsitatea? Guk gauzak ondo egiten baldin baditugu, ez litzateke beharrezkoa izango.

Irakasle lan kontrataduna?

beste hizkuntza batean —ingelesez edo frantsesez— emateko.

Bestetik, EHUk egun ez du euskal gizartearen garapeneren alde egin zezakeen guztia egiten. Alde horretatik, Unibertsitateak gizartean eragile lana egitea sustatuko dugu.

■ Bi urte eta erdi inguru eman dituzu Euskara errektoreorde arduruan. Zelan ikusten duzu egun EHU?

Izugarriko pausuak eman dira barne funtzionamenduaren alorrean. Era berean, irakaskuntza eskaintza asko eta era egokian zabaldu da, irakasleen prestakuntza maila hobetu da, azpiegiturak nabarmen berritu dira, titulazio mapa prestatu da eta euskalduntze prozesuan ere aurrera egin dugu.

Edonola, ezin da ukatu gauza batzuk ez ditugula ondo egin edo ez ditugula egin. Esaterako, graduondoko eta doktore eskaintzetan nahiko estankatuak gaude.

■ Nortzuek osatzen dute zure taldea?

Unibertsitatearekin konprometitua dagoen jendeaz osatuta dagoela esango nuke beste edozein ikuspegiren gainetik. Hau da, jende horrek ez du talde berezietuekiko konpromezurik, ezta beste eratako interesekiko konpromezurik ere. Eguno lau errektoreorde daude nire taldean.

Gorane Agirre
LEIOA

Bat nator Gobernu Batzarrak irakasle karrera arautzeko txostenarekin. Alde horretatik eta lege arautegiak onartzen duen neurrian, hori garrantuko nuke.

Ikerketa? Nahiko aurreratuta gaude hainbat arlotan. Bi gabezia: ez dugu ikerkuntzaren emaitzak plazaratzea lortu, eta ahalegina egin behar dugu bitartekoak kanpotik ateratzeko.